

Abarak

MIKEL ASURMENDI

Maitasuna gerra garaian

Miel de naranjas. Zuzendaria: Imanol Uribe. 01:41 mn.
Alta Producción S.L.U. (Espainia) / Fado Filmes
(Portugal). Aktoreak: Iban Garate, Blanca Suárez,
Karra Elejalde, Eduard Fernández, Carlos Santos.

ANDALUZIA. 1950eko hamarkada. Espainiako Gerra Zibilaren ondoko garai doilorra. Francisco Franco militar faxistaren lehenengo urteak dira, ezurteak. Diktaduraren aurkako erreboltaiek (*Maquis*) erresistentzian dihardute. Hauetako batzuk, legeari ihes eginak, *sierran* dabilta, frankismoak ezarritako legearen aurka altxa dira. Legalitatean ari dira ere beste batzuk. Herrigunetako bizitza “normaldu”an, erdi-klandestinitatean, gaueko lanetan. *Cencerro*, *Perdigones*, *Tomillo*. dira horietako batzuen goitzenak.

Erregimen ankerrari aurre egiteko antolatu dira, Alzamiento Nazionalari aurre egin zioten hildakoen duintasuna bizirik gorde aldera sikiera. Militar faxisten nagusitasuna erabatekoa da. Garai nahasia. Elkarbizitza gogorra da, psikologikoa nahiz fisikoa, gosete urteak izaki. Mesfidantza gailentzen da herritarren artean. Pertsonen bizitzak ez du bi sos balio. Enrique eta Carmen bikote gaztea, maitasunaren abaroan, egoera horretan moldatzen dira, itxurak itxura.

Honaino nire eskutiko sinopsia. Filmak iradoki dizkidanak segidan, bi partetan emanak:

Bizitzeak, garena garena ere, birmoldatzen gaitu. Areago, gerrak harrapatzen bagaitu, gure izatearen bilakaerak harrutuko gaitu, harritu ez ezik, larritu, baita bizi eraldatu ere. Bizitza “normaldu”an hurkoa ez dugu inoiz ezagutzen, eta geure burua ezagutzea bizitza osoaren ikasgai amaigabea da. Gerran,



Iban Garate (Enrique), filmeko protagonista nagusietako bat, Karra Elejalde (Don Eladio) atzean daukala.

berriz, gure burua ezagutzeak eta gure erabakiak hartzeak areago larriagotzen gaitu. Gure erabakiak eta konpromisoak onartzeko prest egon gaitezke, larriki bada ere, baina ez ditugu besteak berdin onartzen. Enrique eta Carmen gazteen kasua da.

Imanol Uribe eskarmentudun zinegilea da, begibistan da. Gaiak gai, gerra, kitzikagarria izaki, pantailara ekartzen jakin du. Badaki filmatzen, hots. Filma ongi birsortuta dago: ongi narratuz eta muntatuz, eszenen tempo ongi neurtuz, plano ederrak islatu ditu. Hots, kontatzen digu, hala testu nola irudi landuen bidez –laranjen ezintasuna ageriz nola–. Filmaren jarraitutasuna egokia da. Oreakta. Nekez ihes egingo diozu kontaktari. Akzioa neurritsua da eta ongi tartekatua. Aktoreek maila politen dihardute. Esaterako, Karra Elejalde (Don Eladio) bikaina da, baina aktore horren maila ezaguna da. Iban Garate (Enrique), artean, aktore ospetsua eta zaildua izan gabe, horra bidean jarri du Uriberen *Miel de naranjas*en egindako interpretazioak.



Pantaila Globala erakusketa, San Telmo Museoan Irailaren 30era arte

Pantailaren botereak egunerokotasunaren esparru guztietan daude: zinema, telebista, ordenagailuak, telefono adimendunak, tabletak, zaintza pantailak... Eta gure bizitzatan geratzeko etorri dira.

San Telmo Museoa Zuloaga plaza, 1. Donostia www.santelmomuseoa.com